

## GABINO ETXEBERRIA ERREFUXIATU ETA PRESO OHIA

### “Ilusioa sortuko duten proiektuak behar dira”

■ Gabino Etxeberriaren hitzetan, negarrak ez du ezertarako balio eta jendea ilusionatu egin behar da. ■ Etxeberriak aipamen berezia egin die presoak bisitatzen joaten diren senide eta lagunei ■ Uste du kartzelan egotea bezain gogorra edo gogorragoa dela astebururo ibilera horiek egitea.

GABINO Etxeberriak 24 urte egin ditu Hernanitik kanpora eta horietatik 7 Frantziako kartzeletan preso, ETako kide izateaz akusatuta. Orain dela 10 egun utzi zuten libre eta zulo beltz batetik ateratzen ari balitz bezala sentitzen omen du bere burua. Zazpi urtez kartzelan egonda, uste du ez dagoela baldintzarik egokienetan analisi politikoak egiteko.

■ 24 urte herritik kanpora eta 7 urte kartzelan pasata, Hernanin zaude berriz.


GABINO ETXEBERRIA: Oraindik bizimodu berrira moldatzen ari naiz. Denek galdeztzen didate ari al naizen aterratzen eta nik neure burua sentitzen dut zulo beltzetik ateratzen ariko banitz bezala. Honekin esan nahi dut bizimodu normal batera egokitzeko denbora beharko dudala.

Gainontzean, goizero ateratzen naiz buelta bat ematera eta umea nintzela ezagutzen nuen jendea ikusi eta haiekin hitz egitea da gehiena inpresionatzen nauena. Oso sententzia fuertea da eta ezin dut hitzez esplikatatu.

■ Ze baldintzetan pasa duzu kartzela aldia?

Kartzela beti oso gogorra da. Kartzelan sartzen zaituztenean jabetu behar duzu egoera horrek ez zaituela ito behar eta gogor egin behar diozula. Baina, ez daukat gogorik egin dizkiguten miseria guztiak kontatzen hasteko. Ondoan izan dut laguntza eman didan jendea, bai preso politikoak eta baita komunak ere, eta oroitzapen positiboak atera nahi ditut egonaldi horretatik.

Familiari eta lagunei aipa-



Gabino Etxeberria gaztaroko eta haurtzaroko jendearekin hitz egiteak inpresionatu du gehiena.

men berezi bat egin nahi nieke eta besarkada haundi bat bidali. Uste dut haien ibilera, neri eta beste presoei astebururo-astebururo bisitan joanez, kartzelan egotea bera bezain gogorra edo gogorragoa dela. Ez daukat hitzik haiek egiten duten lana eskertzeko.

■ Nola ikusten du Gabino Etxeberriak egoera politikoa? Berriki, ilegalizazioa dela eta, egoera aldatu egin zaio.

Aurrera begira planteamendu eta taktika berriak saiatu eta landu beharko dira. Bestalde, uste dut PNV/EAren aldetik erabiltzen ari diren diskurtso itxuraz progresista horrek gezur haundi bat gorde dezakeela.

■ Arazoa konpontzeko zein bide ikusten duzu zuk?

Bidea egongo da, baina, ez dut uste espetxetik atera berri batek esan behar duenik zein den bide hori.

Hala ere, uste dut jendeari ilusioa sortuko dioten proiektuak behar direla. Hemen jendea ez bada ilusionatzen, jaunak... Negarrak ez du ezertarako balio. Ni askotan presoan ametan ikusten dut. Sufritzen daude, baina, ez dute irrifarririk galtzen eta horrek sekulako indarra ematen du.

“Zergatik dago korapiloo? Korapiloo nahi dutelako dago. Borroka armatua jarraitu edo ez erabakitzea erakunde armatuari dagokio eta politikoen lana da korapiloo askatzea. Eta korapiloo askatzeko arazoa ez da borroka armatua”.

■ Proposamen zehatza oraindik aurkeztu ez badu ere, zer iruditzen zaizu Ibarretxe plana, eta nola baloratzen duzu erreferenduma planteatzea?

Hor tranpa haundi bat egin da. PNV erreferenduma bere idea balitz bezala ari da saltzen, herriari hitza ematearen defendatzaile sutsuena bera balitz bezala. Erreferenduma beti defenditu izandu duena, ordea, ezker abertzalea izan da, eta ahaztu egiten dugu zenbait buruzagi politikok esaten zuela independentziarekin hazak jan beharko genituela. Erreferendumaren kasuan, bezala, uste dut planaren edukietan ere badaudela beste tranpa gehiago.

■ Batzuk su etena eskatzen

diote ETari abertzaleen arteko elkarlana hasteko, eta beste batzuk alderantziz planteatzen dute prozesua. Nola askatzen da korapiloo?

Zergatik dago korapiloo? Korapiloo nahi dutelako dago. Borroka armatua jarraitu edo ez erabakitzea erakunde armatuari dagokio, eta politikoen lana da korapiloo askatzea. Eta korapiloo askatzeko arazoa ez da borroka armatua.

■ Zer etorkizun ikusten diozu Euskal Herriari?

Ni oso itxaropentsu sentitzen naiz ikusirik azken urteotan etsaiak egin dituen ahalegin guztiak ez duela lortu herri honen askatasun egarria eta borrokarako kemena desagertu araztea. Lehen nioen bezala, ilusioak sortzen dituen proiektuetan murgildu behar dugu.

■ Eta zer herri amesten du Gabino Etxeberriak?

Euskera normaltasunez erabiliko den herria. Euskerarik gabe ez dago Euskal Herriarik. Gainerakoan, nik gauza bat edo bestea pentsatu, jendeak erabaki behar zer nahi duen. Inposizioak ez darama ki inora.

■ Ostera etxean zaudela, zer egingo duzu hemendik aurrera?

Bizi. Nerretzat bizi da familiarekin eta lagunekin egon, besteak bezalaxe bizimodua atera, gure eskubideen aldeko borrokan segi... horixe egingo dut hemendik aurrera.

■ Besterik esateko?

Gabino Etxeberriak eskertzen du atzarako eskaini zitzaion omenaldia. Baina, beharrezkoa iruditu zitzaion atzeratzea egoera lasai bat lortu arte. □

**AITAN-ETXE**  
TABERNA  
EGUNEKO MENUK  
Larramendi 15 - Tel.: 943 55 00 46  
Hernani

www.kronika.net  
HERNANIK  
kronika  
Interneten helbide  
berrian

ARALAR  
TABERNA  
Zapa 8 - ☎ 943 33 15 06 -

YGALDETXXO  
Jatetxea  
Bazkariak eta Afariak  
Ereñozu auzoa  
Tel.: 943 550240  
20120 Hernani (Gipuzkoa)

**SANTA BARBARA**  
PEUGEOT  
Tailerrak: Larramendi 15 - Exp: Arantzazu 15 ☎ 943 551139 / 943 551979  
Auto eta furgoneta zaharrak, 2. eskukoez aldatzen ditugu

Jeep Cherokee 2.5	TDI	SS-BB
SAAB 2000 Coupe		1.995urtekoa
Fiat 1 -	Diesela	GI-AY
Opel Astra	Diesela	NA-AK
Renault Megane Coupe	Sport	SS-BJ
Renault Express	Diesela	SS-AS
Lada Niva	Gasolina	SS-AP
1.000 eta 2.000 eurotan beste hainbat kotxe		

...eta hainbat kotxe merke



## ERREMONTA - CASINO KURSAAL TORNEOA

### Eizagirrek 30-17 menderatu zuen Zeberio eta pauso haundia eman du finalean sartzeko

Eizagirrek denean jokatu zuen hobeto, eta eroso irabazi zion elduindarrari.

LIGILAKO lehenengo partidua erakutsi du Eizagirrek Lizaso torneotik bota izana ez zela sorpresa izan. Zarauzko erremontistak erabat menderatu zuen atzo Zeberio II, eta finalerako bidean da. Horretarako nahikoa du Koteto Ezkurrari 18 tanto eginda

Eizagirrek esana zuen sakearekin saiatuko zela partidua puskatzen, eta sakearekin ez ezik peloteoan eta erremontean ere bera izan zen partiduko onena. Zeberio ez zuen bererik eman, edo kontrarioak ez zion ematen utzi.

Eizagirre 1-3 jarri zen aurretik eta 4na berdindu zuten gero. Hor, 4-10era aldegin zuen zarauztarrak, eta hor bukatu zen partidua: gero, 5-14, 6-17, 7-21, 10-23, 14-28, 15-29, eta azkenean 17-30 bukatu zen partidua.

Emozio gehiegi gabeko partidua izanagatik, oso tanto politak izan ziren. Jende asko bildu zen Galarretan.

Bestalde, jaialdiko bigarren partiduan Ezkurrak eta



Eizagirre azken tantoa eginda. (Ar: Gotzon Aranburu/Argazki press)


Aipuruak 40-39 irabazi zioten atzo Lizaso eta Altuna Iri.

Gaurko partidua: Odriozola-Jon/Matxin V-Agirrezabala;

Altuna II-Aizpuru/Altuna I-Iriarte; Iribarren-Aizpurua II-Zeberio I-Urko; Iturralde-Etxeberria/Juaristi-Badiola. □



Ezkerrean, soinu jole eta txalapartariak jai hasieran. Eskubian, San Kupeltxo Ergobiko jaien 'santua'.



### Sagardo txapelketa gaur Ergobiko jaietan

Txapelketa goizeko 11:30etan hasiko da ■ Arratsaldean, umeak protagonista.

GIRO ederrean hasi zituzten atzo jaiak Ergobin, urtero bezala kupela jeitsita. Arratsaldean Igo Bernardo Arzallus Memoriala jokatu zen txirrindulari gazteekin eta gauean M-N Ezten taldeak jarri zuen dantzagiroa.

Ergobiko jaiak hasi besterik

ez dira egin eta gaur ere festa izango da goiz eta arratsalde. Goizeko 08:00etan txokolata hartu eta gero, eguna freskotik hasi nahi dutenek sagardo txapelketa berezia izango dute.

Arratsaldean, umeak izango dira protagonista. 17:00etan ume jolasak egingo dituzte

eta 19:15etan *Potxin eta Patxin* paiasoak arituko dira.

Apunteria probatu nahi duenak, berriz, 18:00etan toka txapelketa izango du. Gauean, Gaubela taldeak joko du. e

Bihar herri kirolak izango dira goiz eta arratsalde, eta herri bazkaria 14:00etan. □

## SANTIOAK ARANON ETA ASTIGARRAGAN



Aurten ere bi Ligan bi talde nahi ditu Xake Elkarteak.

### Xake Elkarteak denboraldia prestatzeko bilera egingo du bihar, eta xake jokalaririk gazteak animatu nahi ditu bereziki

Xake Elkarteak bere burua eskaini du Eskola Kirolean umeek xakean ibiltzen laguntzeko.

XAKE Elkarteak ari da denboraldi berria prestatzeko lanean eta astelehenean bilera irekia deitu du datorren urteko planari buruz hitz egin eta aurrera ateratzeko bideak bilatzeko. Elkarteak Kronikari azaldu dizkio zein diren bere asmo eta helburu nagusiak. Xake Elkarteak etorkizunari begira xakea oinarritik sendotu nahi du eta horretarako aurtengo apusturik haundienetako bat da harrobia lantzea eta zaletasuna gazteengana zabaltzea.

Apustu horri heltzeko Xake Elkarteak bere burua eskaini du Eskola Kirolean xakea sartzen laguntzeko, iruditzen zaiolako hori dela landu beharreko terreno bat. Gaztetxentzako ikastaroak antolatuko asmoa ere badu Xake Elkarteak. Iaz, Gabonetan lagu-

narteko torneo bat antolatu zuten gaztetxentzat, eta han izandako jokalarien gurasoek eskatuta antolatuko du Elkarteak ikastaroa

#### Gipuzkoako Liga

Hernanik iaz irabazi zuen Gipuzkoako Lehenengo mailan jokatzeko txartela. Iaz bi talde aritu ziren eta aurten ere hala nahi luke Xake Elkarteak, talde bat Lehenengo mailan eta bestea bigarren mailan. Baina, horretarako jokalaririk behar dira, bestela lanak izango direlako taldea osatzen.

Proiektu horei guztiei buruz hitz egin eta aurrera nola atera planteatzeko bihar dago bilera 20:00etan, Xake Elkarteak lokalean (Aristizabal 5). Xake Elkarteak dei berezia egin die jokalaririk gazte eta gaztetxoek. □

## PLATER TIRATZEA

### Gipuzkoako Kopa, Santa Barbaran

Minifoso modalitatean da, goizeko 11:00etan hasita.

SANTA Barbarako tiro lekuan Gipuzkoako Minifoso Kopa jokatu da gaur Hernani-Klub Txantxangorrik antola-

tuta. Tiratzaileek 15na plater naranja dituzte, eta txapelketa goiz eta arratsalde izango da, goizeko 11:00etan hasita. □

#### IRAGARKI MERKEAK

Gela bat alokatzen da, bulegoko lanak, klase partikularak edota masajeak emateko. Zentroan. Interesatuak deitu: 943 55 29 47 - 943 55 46 97

Pertsona bat behar da etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko, 10:00etatik 13:30etara. ☎: 667 019274.

Hernanin ogi banatzailea behar da. ☎: 609 543900 (19:00etatik 20:00etara).

#### ZERBITZUAK

##### ☎ TELEFONOAK

▶Taxiak: 943 550093  
▶Udaltzaingoa: 943 333288  
▶DYA: 943 464622  
▶Autobusak: 943 556662  
▶Anbulatorioa: 943 006666  
▶Jokalaririk anonimok: 943 331103

##### ☎ FARMAZIAK

▶Egunez: Etxebeste  
Elkano 2  
☎ 943 552087  
▶Gauz: Etxebeste  
Elkano 2  
☎ 943 552087